





LESBIANON IKUSGAITASUNA, ORAINDIK ERE, KONPONDU GABEKO AUZIA DA



Hasieran, elkarrizketa egiteko proposatu nionean, Pilar Mendibilek zalantzak agertu zizkidan. Geratu ginen kafe bat hartzeko, hitz egin genuen, eta azkenean, onartu zuen gonbita, garrantzitsua iruditzen zaiolako berea bezalako bidea egin duen jendearen ahotsa biltzea. Ñabardura, hauxe: "Baina kolektiboaren parte naizen aldetik egin nahi dut, bai mugimendu feministaren parte eta batez ere lesbiana feministen kolektibotan aritu ginen kideetako bat naizelako".



DANELE SARRIUGARTE MOCHALES



DANI BLANCO

Gazterik hasi zinen mugimendu feministan militatzen, besteak beste, Donostiako Emakumeen Asanbladan. Ondoren, Gipuzkoako Lesbiana Feministen kolektiboa sortu zenuten. Zer dela-eta?

Mugimendu feministan genbiltzan lesbiana batzuek kezka genuen lesbianismoaren inguruan lan gehiago egin nahi genuelako, eta garaiko mugimendu feminista buru-belarri zebilen abortu libre eta doakoaren aldeko borrokan. Borroka horren helburua ez zen abortatzeko eskubidea lortzea bakarrik, izan ere, mugimendu fe-

ministaren bidez lortzen zuen jende askok era klandestinoan abortatzea; energia pila bat eramaten zuen horrek. Lesbianok toki gutxi genuen hor, eta halako batean erabaki genuen zerbait egin behar genuela. Asanbladan baginen batzuk, eta EHGAMen inguruan ere bazeuden -Euskal Herriko lehenengo lesbiana taldea, adibidez, ESAM izan zen, 1979an sortua, eta EHGAMen ingurukoa zen-. Hor bage-nuen eztabaida, non eragin genezakeen gehiago, eta bietan zeuden kontraesanak. EHGAM guretzat oso mugimendu maskulinoa zen, eta garai hartan feminismoak

oso jardun heteronormatiboa zuen, ziu-rrenik egoerak berak behartuta.

Feminismoaren barruan eragitea erabaki zenuten, azkenean.

Bai, 1983an, Euskal Herriko Lesbianen I. Topaketak antolatu genituen Zamal-biden, Erreterian. Topaketa horietan eztabaidatu genuen non sortuko genituen taldeak, gay mugimenduan ala mugimendu feministan, eta erabaki genuen mugimendu feministan egitea. Zamal-bideko hori eginda, orduan hasi ziren lehenengo kolektiboak sortzen.

Pilar Mendibil, Pilon

DONOSTIA, 1965



Gazterik hasi zen mugimendu feministan militatzen, Donostiako Emakumeen Asanbladan lehenik eta Gipuzkoako Lesbiana Feministen Kolektiboan ondoren. Madrilen bizi zela, bertako feminista lesbianen taldean aritu zen. Lesbiana feministatzat du oraindik bere burua, “izaera politikoa” ematen baitio lesbiana izateari. 2015ean, Donostiako udal hauteskundeetan, Plaz! hautagaitza feministan parte hartu zuen, eta azken urteetan feministak arloka batzeko saioak aritu da (Eragingune Feminista). Arlo profesionalean, *Euskaldunon Egunkaria*, *Egunero* eta *Berria* komunikabideetan lan egin du, produkzioan eta kudeaketa-buru.

Zeintzuk ziren garai hartako aldarrikapenak eta borrokak? Zer aldarrikatzen zuten feministek eta zer lesbianek?

Guk feminista bezala, eta nik hor koka-tzen dut nire burua, asanbladan egiten genuen lanaren %80 abortuarekin zegoen lotuta. Lesbianen kolektiboaren kasuan, bi xede genituen: bata, mugimendu feministan eragitea, sartzea beste ikuspuntu hori, norma heterosexual horren kontra egingo zuen diskurtso bat lortzea; eta bestea, lesbianon klasi-koa, ikusgaitasuna lortzea. Lesbianon ikusgaitasuna konpondu gabeko auzia da, orduan eta orain. Eta bada beste elementu bat, orain ez dudana hainbeste ikusten: sistema patriarkala iraultzea, guk diskurtso bat egin nahi genuen horren kontra. Kolektiboetan arazo handia izan genuen ezkontza homosexualaren aldeko borroka sortu zenean.

Zergatik?

Gu beti jardun ginen eskubide indibidualen alde, hau da, gizarte honetan eskubide asko aitortzen dira bikotearen edo familiaren barruan, eta gu konbentzituak ginen eskubide indibidualak borrokatu behar genituela. Egia da ezkontzarena diskriminazioa dela: zergatik ezin zara zu ezkondu, eta bestea bai? Baina horrek zer kanpaina egitera eramaten zaitu? Diskurtsoa asko findu behar izan genuen.

Gaur egun, euskal herritarrok badugu sexu bereko pertsona batekin ezkontzeko eskubidea. 2005ean onartu zen Espainian eta 2013an, berriz, Frantzian.

Bai, eta ondo iruditzen zait, beste mundu bat lortzen dugun bitartean, guk ere izan behar-ko ditugu bada besteek dauzkaten eskubide berak, bizitzeko-eta. Baina tira. Ikusgaitasuna aipatu dugu lehen. Euskal Herrian bizi garen lesbianak ezkondu gaitzeko eta Hego Euskal Herrikoek umeak izan ditzakegu, baina ez gara inon existitzen. Gehiago agertzen gara, horrelako egoerak behartuta, ikastolan: ama lesbianak umeak jasotzera joaten dira, eta errealitate horrek ateratzen ditu armairutik, baina hori errealitate pertsonala da. Gaiak, mutilak badaude kultur arloan, politikagintzan... baina non daude lesbia-

nak? Zergatik ez dute esaten? Izan ere, egon badaude, eta badakigu, baina... Badirudi normalizatu dela, baina zein eredu ditu gaurko lesbiana gazte batek esateko “hara, *guaia* da!”, eta, ez hori bakarrik, pentsatzeko bizibide ona izan dezakeela?

Ikusgaitasuna hauspotzeko, nolako ekintzak antolatzen zenituzten?

Bada aurpegia ematea, laztana! Sekulakoa zen hori. Sekulako arazoak genituen. Bere garaian argazki asko egiten ziren bizkarra emanda. Asun Urbieta eta biok izan ginen ETBn atera ginen lehenengo lesbianak. Telebistan agertzea bera izugarria zen. Programa horietan sekulakoak esaten zizkiguten, adibidez, “nik zulo bat egingo nuke lurrian, zuek guztiak sartu eta zuloa estali”.

Kolektibo bezala, 1989an, kartel bat atera genuen, “zergatik zara heterosexuala?” zioena. Martxoaren 8an atera genuen, ez ekainaren 28an. Oso kartel deserosoa izan zen (asanbladako batzuentzat ere bai), heterosexuali zuzendu genielako galdera. Urtetan jasandako “zergatik zara lesbiana?” galderari buelta emateko saio mundiala izan zen. Gerora, Espainiako Estatuko kolektiboek ere egin zuten.

Zer eman dizu militantziak?

Militantzia feministari esker ikasi dut borroka dela bide bakarra [barreak], eta serio diot. Eta kolektiboa. Guk, orduan, kolektibo bezala sinatzen genuen beti, kolektibo bateko kide sentitzen ginen, tribu ginen, agian endogamiko samarrak... Nire garaiko lesbianok, gure bizi-prozesuan, haurtzaroko kuadrilla galdu dugu, eta beste inguru bat sortu behar izan dugu. Beraz, kolektiboko kideok lagunak ginen, elkarrekin bizi ginen, elkarrekin militatzen genuen, eta guretzat militantzia egunerokoa zen, aste-bururo genuen koordinazio-bilera... ehuneko ehun genbiltzan. Feminismoak, berriz, eman dit autoestimua eta boteretze handia. Ideologiagatik, batetik, eta bestetik, bere garaian lesbiana publikoa izateak eskatzen zizulako boteretuta egotea, bestela...

“**Mugimendu feministan sekulako garapena izan da euskarari dagokionez, eta kanpotik etorritakoen hizkuntzei dagokionez**”

Arlo profesionalera pasata, hogei urte pasa egin zenuen *Euskaldunon Egunkaria*-n eta *Berria*-n lanean. Euskal Herrian lau egunkari nazional



egon dira euskaraz: Eguna bere garaian, gero *Euskaldunon Egunkaria*, *Egunero* -inor ez da gogoratzen baina *Egunkaria*-tik *Berria*-ra *Egunero* egon zen lau hilabetez-, eta *Berria*. Lau periodiko horietatik hirutan egon naiz.

Zer lan egiten zenuen?

Kazetariak idatzi eta pentsatu egiten dute, produktuak nondik nora joan behar duen, baina gero jende asko dago hori gauzatzen duena, kazetarien lanarekin bakarrik ezingo litzateke periodiko bat aurrera atera, ezta irratia edo telebista ere. Hor badago guk edizio-sistema deitzen dioguna. *Berria*-ren kasuan, kazetariak idazten dute, baina haiek idatzi ahal izateko, diseinatzaileak maketak egin ditu, teknikariak haien ordenagailuak-eta bermatu dituzte, administrariak daude, lokalaz eta soldatez arduratzen direnak... Erredakzioan zehazki, idatzi ondoren, badago euskara talde bat, kazetariak idazten dituztenak hobetzen eta zuzentzen saiatzen dena, eta badago argazkiak lantzen dituen... Badago prozesu handi bat, kazetariak egiten duten lana hobetzeko. Kalitate plusa ematen diote. Ni prozesu horretaz arduratu nintzen urte askoan.

Eta nolako oroitzapena daukazu?

Oso ona. Niri asko gustatzen zitzaidan lana. Bi ardatzek asko eragin didate gaur egun naizen honetan: feminismoak eta *Egunkaria*-n, *Berria*-n eta euskalgintzan lan egiteak, horri eskainitako dedikazioak eta energiak.

Mugimendu feministan lesbianen alde borrokatu bezala, euskararen eremuan feminismoaren alde borrokatu zara. Bidegurutzean beti?

Mugimendu feministan, militantzia hutsa egin dut, hor egon nahi nuen eta nire denbora dedikatzen nion. *Egunkaria*-n eta *Berria*-n, berriz, lana zen, nahiz eta hor lan egitea militantzia ere baden, eta *Egunkaria*-ren hasieran are gehiago. Ordu pila bat sartzen genituen. Jaiegunetan, larunbatetan... Azkenean, *Egunkaria*-ko jardunak ekarri zuen, nolabait, mugimendu feminista utzi behar izatea, ez zelako bateragarria. Mugimendu feministan beti saiatu ginen egiten genuena euskarara ere ekartzen, batzuk euskaldunak ginelako eta iruditzen zitzaigulako horretan ere bagenuela laguntzea. Bestalde, *Egunkaria*-n eta *Berria*-n, ardura-postuetan pasatu ditut kasik urte guztiak, zuzen-

daritzan, eta horrek bidea eman zidan eragiteko: batetik, produktu justuagoa egiteko -zeren, produktu feministagoa izatea, azkenean, produktu justuagoa izatea da-, eta egitura aldetik emakumeen presentzia handiagoa izan zedin. Baina beste gauza batzuetan ere bai.

Adibidez?

Adibidez, lehen esan dizudan bide horretatik, mundua iraultzeko bide horretatik, *Berria*-ren lan itunean badaude berezitasun batzuk. Pentsa, jendeak, ezkontzen denean, hamabost eguneko baimena du, eta gainera ezkontzen den jendeak hartu nahi ditu hamabost egun horiek. Beraz, horren kontra ezin duzu egin, langileen estatutuak agintzen duelako. Baina zer gertatzen da, bikotean bizi ez den jendeak ez du inoiz izango aukerarik hamabost egun hartzeko? Gure gizarte honetan posible da ezkondu, dibortziatu, berriro ezkondu... infinitura arte, eta beti izango ditut hamabost egun; besteek, ordea, ez. *Berria*-ko lan itunean biltzen da, ordea, *Berria*-ko langilea izanez gero eta hiru urteko antzinatasuna izanez gero, hamabost eguneko baimena eskatzeko eskubidea

daukazula. Edo beste bat: *Berria*-ko lan itunean azaltzen da amaren bizilagunak hiru egun izango dituela libre; orokorrean, ume horren ama edo aita izango da, baina ni bizi baldin banaiz nire ahizparekin eta hura haurdun badago, nik, *Berria*-n, hiru egun izango ditut. Horrelako gauzak landu izanak, eztabaia horien haziak bota izanak, oso harro sentiarazten nau.

Euskararen eta feminismoaren arteko lotura argiago ikusten da egun? Nola izan da bide hori?

Nire sentsazioei buruz hitz egingo dizut. Mugimendu feministan sekulako garapena izan da hizkuntzen gaiarekin, ez bakarrik euskararekin, jende pila bat kanpotik etorri izanak eta hainbat hizkuntza edukitzeak hausnarketa abiatu du mugimendu feministan. Mugimenduak hartu duen hautu politikoa da euskaraz aritzea, baina besteen hizkuntzak errespetatuz. Xuxurlatzaileen zerbitzua, adibide ederra da. Espazioak ere eragiten du, jakina, ez da gauza bera Gasteizen, Azpeitian edo Donostian aritzea, orain eta lehen. Mugimendu feministaren xedea beti izan da euskararen sen-

tsibilitatea eta gure egoera agendan kokatzea, eta hau esaten dut zeren badirudi orain dela 30 urteko mugimendu feminista espainola zela, eta ni han egon nintzen ez esan nahi dut ez zela horrela. Mugimendu feminista bere garaiko errealitatearen parte zen, eta oso ezberdina zen Azpeitian, Donostian eta Gasteizen aritzea.

Eta feminismoa euskararen munduan?

Euskalgintzan ere ikusten dut, gizarte osoan bezala, feminismoak hartu omen duen presentziarekin eta indarrarekin, ariketa batzuk egiten ari direla. Ikusita nola, abortuaren gaiarekin, mugimendu feministak lortu zuen Espainiako legeari atzera eginaraztea, edo zer mobilizazio antolatu diren Iruñeko bortxaketa basati horren aurrean, uste dut euskalgintza horregatik ere jarri dela feminismoari begira. Adibidez, egunotan, Nafarroako euskararen legearen kontura batek baino gehiagok aipatu du ea lortuko den bere garaian abortuaren edo Iruñeko bortxaketaren kontura izan ziren mobilizazio erraldoiak egitea. Beraz, interesa ez da bakarrik feminismoaren ideologiarekikoa, hau

da, konturatu direlako haiek ere maskulinoak direla; feminismoaren estrategiaz ere badute interesa, “badugu nondik ikasi”, ari dira esaten.

Euskalgintzan eta gizartean ariketa batzuk egiten ari direla esan duzu. Nolako fruituak eman ditu horrek?

Gure munduan, ezkerreko munduan, eta ondorioz euskalgintzan ere bai, orain arte egin duten prozesu horretan, konturatu dira emakumerik ez dela ikusten argazkitan, zuzendaritza motei buruz hausnartu dute, eta ahalegin batzuk egin dira, zintzoak. Baina errezeloa daukat, hor dauden emakumeak hasi direnean gauzak zalantzan jartzen edo beste modu batean egin nahian, sekulako krisia sortu dela. Iruditzen zait momentu horretan gaudela, bai ezkerrean, baita euskalgintzan ere.

Are gehiago, iruditzen zait ez dela kasualitatea Uxue Alberdik eta emakume bertsolariek idatzi duten liburuaren kontura, isiltasuna nagusitu dela esatea. Nire ustez, *Kontrako eztarritik* liburuak, bertso munduaz hitz egin arren, gauza batzuk aldatuta, ederki balioko luke gure munduaz hitz egiteko. ●



Gipuzkoako
Bertsolari Txapelketa
2019

Urriak
26 17:00
Eibar. Coliseo Antzokia

Jon Maia Soria
Gorka Maiz Alustiza
Jokin Uranga Isuskiza
Unai Muñoa Amundarain
Felix Zubia Olaskoaga
Mikel Tapia Aierbe

Aurkezlea: Itziar Etxezarreta Arakistain



Urriak
27 17:00
Azpeitia. Soreasu Antzokia

Alaia Martin Etxobeste
Oihana Iguaran Barandiaran
Nerea Elustondo Plazaola
Iñigo Mantzizidor Larrañaga
Iñaki Gurrutxuaga Zubimendi
Amaia Iturriotz Etxaniz

Aurkezlea: Imanol Artola Arretxe



Final-laurdenak



www.bertsozale.eus

Loguntzailea

